

Testosteronak berekoikeria areagotzen duela frogatu dute

Odoleko testosterona-mailak pertsonen jokabidean eragiten duela frogatu dute Londresko Unibertsitateko ikertzaileek. Zehazki, berekoi jokatzera bultzatzen duela ikusi dute. Ikertzaileen esanean, emaitzak baliagarriak dira “ulertzeko zer eragin duten pertsona menderatzaileek taldeko erabakietan”.

Orain arte, taldeko erabakietan eragina duten mekanismo biologikoak ulertzeko ikerketetan, elkarlana sustatzen duten faktoreei jarri izan zaie arreta. Hala, ikusi dute oxitozina hormonak lankidetzan jarduteko joera areagotzen duela. Orain, testosteronak kontrako eragina duela erakutsi dute.

Horretarako, 17 boluntario-bikote aztertu dituzte, denak emakumeak. Bikoteek proba batzuk egin behar izan

zituzten; proba haietan, emaitza hobeak lortzen zituzten elkarlanean arituz gero, eta halaxe jokatu zuten bikote gehienek. Alabaina, erdiei testosterona-injekzio bat eman ondoren, testosterona jasotakoek jokabide berekoa erakutsi zuten, bikotearen kaltetan izan arren.

Ikertzaileek argitu dute ikerketan emakumezkoek bakarrik hartu dutela parte, gizonezkoek berez testosterona-maila altua dutelako, eta, kanpotik eman ez gero, gorputzak berezko ekoizpena jaisten duelako. Hori dela eta, gizonezkoek testosterona



ARG.: ELHUYAR FUNDATZIOA

injektatuta ere, ez da hormonaren maila igotzen odolean. *Proceedings of the Royal Society B*. aldizkarian argitaratu dute ikerketa. ●



Elefanteen seigarren hatza

Duela 300 urte deskribatu zen elefanteek sei hatz dituztela oinetan, baina orain arte uste izan da seigarren hatz hori kartilago hutsa zela. Londresko Errege Albaitaritza Institutuan, ordea, elefantearen seigarren hatza aztertu dute, eta *Science* aldizkarian argitaratu dute benetakoa hezurrez osatuta dagoela. Are gehiago, egitura horrek falangeen arteko artikulazioak ere baditu.

Animalietan ohikoena da besoek eta hankak bost hatzeko egiturak izatea,

eskuak eta oinak, baina salbuespen asko daude: animalia batzuek hatzak galduta dituzte eboluzioan, eta beste batzuei hatz berriak sortu zaizkie. Elefantea eta errinozeroa dira sei hatzeko oinak dituztenen adibideak. Seigarren hatz hori —atzeranzko posizioan duten egitura bat— abantaila izan da, animalia handi horientzat garrantzia duelako gorputzari zutik eusteko eta egonkortzeko eginkizunean. Elefantearen kasuan, behintzat, adituek

diote, pandaren erpuaren antzeko kasua dela. Jatean, pandak seigarren hatz batez baliatzen dira banbuari eusteko, eta eboluzionistek diote ezaugarri hori garatu zitzaizela haragia jateari utzi eta beste elikadura-mota bat izan ahala. Elefanteen kasuan, berriz, egitura ez dago elikadurari lotuta, baizik eta gorputz handi horri eusteko moduari.

Londresko Errege Albaitaritza Institutuko taldearen buruak, John Hutchinson-ek, elefante-oin izoztuen bilduma handi bat du, 60 oin inguru, zooetan elefante bat hiltzen denean Hutchinsoni oinak bidaltzen baitizkiote autopsia egin dezan. Lagin horiei tomografiak eginda, mikroskopio elektronikoz aztertuta, eta beste teknika batzuen bitartez jabetu da nola aldatzen den seigarren hatza elefantearen bizitzan zehar. Hasieran kartilagoa den arren, animalia hazi ahala, egitura hezur bihurtzen da. Eta hatza hezurrezkoa izateak animaliari laguntzen dio pisuari hanken gainean eusten. ●



ARG.: KATY RAWLINGS